



Urteko azken aldarriak presoan alde

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶ Gaur eta bihar mobilizazioak deitu ditu Etxerat-ek bi eskualdeetan

ESKAERAK ▶ «Estatus politikoaren errekonozimendua eta behingoz sakabanaketarekin bukatzea» ▶ 7



N. LATABURU

67 talde ari dira lehian Shanti Torneoan

TOLOSA ▶ Inoiz baino parte-hartze handiagoarekin abiatu da; lehen fasea amaitzear da; urtarrilaren 8an jokatuko dituzte finalak ▶ 3



Ezker-eskuin: Iztueta, Izagirre, Espin, Aldalur eta Ortiz. I. ETXEBESTE

TOLOSA ▶

TB: «EAJ Tolosa Batzokia balitz bezala ari da jokatzeko»

EAJren aurtengo udal kudeaketaren balantzea egin du herri plataformak ▶ 2

LEITZA ▶

‘Leku bitxi’ izendatu dute Iruso ostatua

Sari «garrantzitsua» da, jabearen iritziz ▶ 7

ANOETA ▶

Jone bakarlaria, jaioterrian zuzenean

Gizarte eragileen kanpainaren baitan ▶ 4

ALEGIA ▶

Txintzarri abesbatzen urteko azken saioa

Gabon-kantak eskainiko dituzte ▶ 5

Bridge
Language School

BRIDGE 2005, S.L INGELESA

- Haur, gazte, helduentzat.
- Taldeetan edo bakarka.
- Azterketa prestaketa; Cambridge University, H.E.O....
- Interprete eta itzulpen zerbitzuak

943 652 373 - 680 222 526
bridgetolosa@yahoo.es

Pablo Gorosabel, 2-1A • 20400 Tolosa - Gipuzkoa

ABENDUAK 31, arratsaldeko 7retan

Zinokilgo Jose Arregi plazatik Vilabonako Plazara

Manifestazio ixila

AIZTONDO BAILARA
jiza eskubide justizia alde!!!

POLITIKA ▶



Tolosa Bizirik-eko kide Aitor Iztueta, Antton Izagirre, Hektor Espin, Begoña Aldalur eta Iban Ortiz, herenegun, Kultur Etxean. I. ETXEBESTE

TB: «Tolosa Batzokia balitz bezala ari da jokatzeko EAJ»

EAJk azken urtean egindako Udalaren kudeaketari buruzko balantzea egin du herri plataformak: «Politika alderdikoia, antisoziala eta agintzailea darama»

IRATXE ETXEBESTE

Eusko Alderdi Jeltzaleak azken urtean egin duen Tolosako Udalaren kudeaketari buruzko balantzea egin du Tolosa Bizirik-ek. Helburu horrekin bildu ziren herenegun arratsaldean herri plataformako ordezkari Antton Izagirre, Begoña Aldalur, Hektor Espin, Iban Ortiz eta Aitor Iztueta Kultur Etxean, eta EAJk 2005. urteko kudeaketa «alderdikoia, antisoziala eta agintzailea» egin duela esanez hasi ziren hizketan.

«Gerontologikoaren itxieraren inguruan EAJren bistako utzikeria salatuz hasi genuen urtea. Oraindik ez dugu utzikeria hori ulertzen. Urtebete gerago garbi ikusi dugu Tolosan Gerontologikoa behar dela, erabaki hark herrian egoiliarren plaza kopuruak murriztea

ekarri zuelako». Tolosa Bizirik-eko udal ordezkariak diotenez, «orain esan dezakegu utzikeria hark Batzokiren batean adostutako estrategia bati jarraitzen ziola, herritarren beharriari erantzun beharrean, mesede trukeak egiteko». Horrez gain, TBeko kideek uste dute EAJk «politika neoliberala, kontserbadorea eta eskuindarra» egin duela, gizarte zerbitzuak «pribatu bilakatzeko nahia duelako».

Voith-Gorostidi eremuaren kudeaketa da, TBeko ordezkariak hitzetan, EAJk daraman politikaren beste adibide bat. «Udal korporazioaren eta udal teknikariaren bizkarrera, beren alderdiaren ingurukoak diren eraikuntza enpresen esanak betetzen dituzte». Gipuzkoako Foru Aldundiak proiektu hori geldiarazteko itxaropena dute-

la esan zuten herri plataformakoek horren harira, «Tolosako etxebizitza arazoa konpondu ez, eta, gainera, alderdi interesen mesedetan gure etorkizuna hipotekatzen duelako». Beren esanetan, Udal Gobernuak «ez du bat egiten EAJren planteamendu horiekin», eta, kontrara, PP eta PSOE alderdien «babesa» du.

TEPEren kudeaketaz ere bai

TEPE Tolosaldeko Euskararen Plan Estrategikoaren baitako kudeaketaz ere iritzi bera dute Tolosa Bizirik-ekoek; alegia, EAJk «alderdi interesak defenditzen» dituela: «Orain 4 urte, plana onartu zenean, telebista lokala sortzea erabaki zen, Tolosalderako euskarazko hedabide sarea osatzeko: HITZA, irratia, Internet... EAJk ez du aint-

ztzat hartzen planak dioena, eta bere ildo politikoarekin bat egiten duen komunikazio enpresa batekin telebista abian jartzea erabaki du, Tolosaldea euskalduntzeko lanean ari diren eragileekin kontatu gabe».

Hori guztia egiteko, EAJk «bere konfiantzako langileak» behar dituela uste dute Tolosa Bizirik-ekoek, eta, bestela, «dimittituarazi» egiten dituztela, «Tolosaldea Garatzen garapen agentzikoarekin gertatu den bezala». Gainera, herri plataformakoek diote jokaera hori aurrera eramateko EAJk «PP eta PSOE alderdien babesa» duela. «apartheid politikoa indarrean mantentzearen truke». Herri plataformakoek aburuz, «Tolosako 2.500 herritarren eskubide zibil eta politikoak urratzearen erantzule da EAJ horregatik».

GIZARTEA ▶

Gabonetako Haur Parkea bihar arte dago zabalik

Goizez eta arratsaldean joan daitezke haurrak eta gaztetxoak Ferialekuko jolastokira

I. ETXEBESTE

Gabonetako Haur Parkeak bihar itxiko ditu atekak datarren urtera arte. Hortaz, gaur edo bihar dute eskualdeko haurrak eta gaztetxoak Ferialekuan ezarri duten jolastoki erraldoira joateko azken aukera. Goizez 10:30etik 13:30era eta arratsaldean 15:30etik 19:30era dago zabalik, adin guztietako haurrentzat eta gaztetxoentzat.

Antolatzaileek iragarri dutenez, 3 euro balio du sarreak, eta egun osoan da baliozkoa. «Jolas eta atrakzio ezberdinak daude guztientzat», esan dute.

GIZARTEA ▶

Ohi baino lehen irtengo da biharkoan azken urbanoa

I. ETXEBESTE

Tolosako urbanoak ohi baino lehenago irtengo du biharkoan bere eguneko azken zerbitzua. Hilaren 24an bezala, urteko azken egunetan ere 20:30ean irtengo du azken urbanoak, eta, beraz, gauean ez da autobusa batetik bestera ibiliko. Eguberrietako gainerako egunetan zerbitzu normala eskainiko du urbanoak; ohiko orduetan eta lekuetan aterako da.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

KIROLA ▶



Atzo goizean neskek Usabalen jokaturako partidaren une bat. NOELIA LATABURU

Shanti futbito torneoa abian, inoiz baino partaide gehiagorekin

67 taldek eman dute izena maila ezberdinetan; goizero jokutzen dute Usabalen; finala, berriz, urtarrilaren 8an da

NOELIA LATABURU

Kirol arloan ikur bilakatu den Shanti futbito torneoa abian da dagoeneko gurean iragan astelehenean. Aurtengoan, gainera, partaidetza inoiz baino handiagoa izatea lortu dute. Izan ere, 67 talde ari dira jokatzeko torneoa, neska zein mutil. Partidak egun guztian zehar garatzen dira, Usabal kirol eta aisialdi gune berrian. Partaidetza altua dela eta 25 minutuko iraupenera murriztu dituzte neurketak, lehen fasea amaitu artean. Bigarren fasea, finalerdiak eta finala bera, urtarrilaren 2tik aurrera jorratuko dira. Antolatzaileek Andoni Imaz Kirol zinegotziaren laguntza eskertu dute beste babesleak ahaztu gabe eta, bide batez, jokalariei zein entrenatzaileen laguntza eskatu dute, «guztia ondo joan dadin».

Guztira, bost talde osatu dira partaide guztiekin: infantil mutilak, alebin mutilak, benjamin mutilak, infantil neskek eta alebin neskek. Datorren astelehenera arte lehen faseko neurketak jokatu dituzte gaztetxoek. Goiz eta arratsalde aritzen dira jokoan eta harmailak ere erruz betetzen dira, lagun zein senide asko joaten baita haien

LEHEN FASEA ▶

GAUR

Infantil mutilak. 16:00etan: Piratas-Txinparta.

Alebin mutilak. 10:00etan: Fronton Kafe-Trigre Txiki.

10:30etan: San Juan-Tigers.

16:30etan: Danon Txokoa-Fronton Kafe.

17:00etan: Tigers-Ixaso Honda.

Benjamin mutilak.

12:30etan: Berrobi-Kukuak.

13:00etan: Aurrera Leiza-San Juan.

15:00etan: Ibarra-Deabru Bizkorak.

15:30etan: Izar Txikiak-Langileak.

Infantil neskek. 11:00etan: Orixe-Tigre Txikiak.

11:30etan: Oiarzabal-Matxurrinak.

Alebin neskek. 12:00etan: Bihurriak-Super Laskorain.

12:30etan: Palomitas-Multas.

Benjamin mutilak.

10:00etan: Txalupa-Zuloaga.

10:30etan: Lehoiak-Berrobi.

11:00etan: Toten-Aurrera.

11:30etan: Los Cracs-Ibarra.

12:00etan: Laier-Izar Txikiak.

15:30etan: Los Cracs-Deabru Bizkor.

16:00etan: Zuloaga Txiki-Marrazoak.

gertukoaren jokarekin gozatzen. «Jende asko hurbiltzen da Usabaleran, eta oso gustura gaude izandako jarraipenarekin», azaldu dute antolatzaileek.

Torneoaren helburua beti ere umeei «kirolarekin taldean arteko elkartasuna bultzatu ahal izatea eta ondo pasatzen ikas dezatela da». Orain artean ondo garatu dira jokaturako partidak, «maila ona izan da, eta ez da inongo arazorik suertatu partaideen artean». Antolatzaileak pozik dira, beraz, orain arteko balantzean.

Bigarren fasea, hastear

Torneoa bete-betean dago orain. Asteartetik aurrera, berriz, egunotan sailkatzen diren taldeek finalerako txartela lortzeko bigarren faseari ekingo diote. Finala, berriz, urtarrilaren 8an izango da, igandean; ordua datozen egunotan zehaztuko dute. Garrantzitsuena ez da, ordea, irabaztea, parte-hartzea, baizik. Urtea zaharra amaitu eta urte berria hasi, biak ala biak kirol elkartasuna bultzatuz, urteetan zehar Tolosako kirol ekitaldi garrantzitsuenetarikoa denari jarraipena emateko.

TOLOSA-VILLABONA-ZIZURKIL ▶ KIROLA

Bi lasterketa eskualdean urteari agur esateko

Bata Tolosako San Silbestre krosa da, eta bestea Villabona-Zizurkil Urte Zahar krosa

N. LATABURU

Etzi, larunbata, kirolarekin bi hitzordu daude eskualdean. Batetik, Tolosan San Silbestre krosa korrituko da, zortzigarren urtez. Lasterketa, Samaniego-Orixe ikastetxeko Kirol Eskolak antolatu duena, 16:00etan abiatuko dute gaztetxoek, eta ondorengo orduetan gainontzeko mailakoak aterako dira. Ibilbideak Alde Zaharreko kaleak hartuko ditu bai eta herri erdikoak ere. Helduek izena eman beharko dute 5 euroren truke eta bi aukera dituzte horretarako: lasterketa eguna baino lehen Aralar Kirolak dendan, edota egunean bertan, 15:00etatik aurrera, Berdura plazan. Nagusiek bakarka edo launaka har dezakete parte. Lasterke-

taren amaieran sariak banatuko dituzte parte-hartzaileen artean. Bertan lortutako dirua, gainera, Indiara bideratuko dute bi Gobernu Kanpoko Erakunde bitartez, San Bartolome Misio Taldea eta Calcuta Ondoa; bilketa irteeran eta helmugan egingo dute.

Bestetik, Villabonan eta Zizurkil artean ere XXII. Urte Zaharreko Lasterketa korrituko dute, Zumbeltz eta Urkamendi elkarteek antolatuta. Irteera Urkamendi elkarte parean izango da; maila ezberdinak izango dira (benjaminak, alebinak, infantilak, kadeteak, seniorrak eta beteranoak); 16:00etan irteneko dira benjaminak eta 16:30ean gainontzekoak. Ibilbidearen luzera ere ezberdina izango da maila bakoitzekoentzat.

MUSIKA ▶

Kalejira Musika Bandarekin, bihar 20:00etan

Tolosako Musika Bandak urtero Urte Zahar egunean antolatzen ohi duen kalejira egingo du biharkoan, Alde Zaharreko kaleetan barrena. 20:00etan ekingo diote kalejirari, eta abiapuntua Gorriti plaza izango da. Askotariko kantua joko dituzte, Alde Zaharrean, kalez kale, bertako txokoak alaitzeko. Honenbestez emango die amaiera bandak urteko musika emandiei.

ISTRIPUA ▶

Kamioi gidari bat larri zauritua, N-1ean

Istripu handia gertatu zen atzo 07:00ak baino zertxobait lehenago N-1 errepidean, Tolosa parean. Zehazki, errepide horretara ateratzeko irteeratako batean, Irungo norabidean, kamioi izozkailu bat irauli egin zen eta kamioi gidaria larri zauritu zen. Erantzintzak emandako datuen arabera, 29 urteko T.A.D. zen gidaria, Nafarroakoa. Hasieran kamioian harrapatuta geratu zen eta ateratakoan Donostiako Ospitalera eraman zuten.

GIZARTEA ▶

Saskibaloia ikusgai gaur Kultur Etxean

Gaur, 19:00etatik aurrera, Kultur Etxean, Tau Ceramica eta Winterthur FCB taldeen arteko partidua izango da ikusgai. Ekitaldi hau II. Gazte Astearen baitan antolatu du Tolosako Udaleko Gazteria sailak. Aste guztian zehar garatu dituzte 13 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzendutako hainbat ekitaldi. Interesatuek Gazte Topagunera jo beharko dute, bertan izena emateko.

MENDI-ALDE

Eguneroko menuak eta karta **Jatetxea**
Bataioak, Jaunartzeak,...

San Esteban auzoa, 39 • ☎ 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

ALEGIA ▶ MUSIKA

Txintxarriren emanaldian, Gabon-kantak entzungai

Alegiako Joan Bataiatzailearen elizan abestuko dute gaur, aurten azken aldiz

NEREA URBIZU

Txintxarri abesbatzak ezin zuen hobeto amaitu urtea: Alegian bertan eskainiko du kontzertua bai txikien abesbatzak eta baita Txintxarrik berak ere. Kultur elkarteak hainbat emanaldi prestatu ditu, eta horien artean kontzertu hau dago. Gaur izango da, 19:30ean, Joan Bataiatzailearen elizan. Ordubetekoa izanen da emanaldia, eta lehenak txikiak izanen dira abesten. Kasu honetan, Idoia Iraola egonen da zuzentzen, eta 15 urtez zuzendari dirauen Garbiñe Orbegozok helduen abesbatza. Txintxarri Txiki *Ton pare no se nas* eta *El negro*. Aitor Iraolak pianoaz lagunduta, gehi Javi Bustoren bi euskal kanta eskainiko dituzte.

Helduen abesbatzak zazpi kanta abestuko ditu: *Haur eder baten bila*, *Oi Bethlehem*, *Haurtxo maite* eta *Ariñ-ariñ kristauak*, kantu ezagunen artean. Ingelesez ere Eguberrietako bi kantu entzungo dira ere: *Away in a manger* eta *Deck the hall*. Argentinako kanta tradizional batekin kontzertuari «ukitu hegoamerikarra» emango diote, *Mazapán con miel* delakoa izanik.



Txintxarri Txiki haur abesbatza, emanaldietako batean. HITZA

Gabonetako erreperitorio zabalean, abesbatza gutxi abes dezakete Txintxarrik abestuko duen obra maisu hau: Haendelen *Alleluia*. Urtero egin ohi duten bezala, aurten ere hori eskainiko dute, elizako koruan igota. Mariaje Rekondo alegia-

rrak lagunduko du pianoarekin, kontzertuko beste hainbat obratan bezala.

Eguberrietako kontzertuen zikloa ixteko, Urte Berri egunean Txintxarri abesbatzak meza nagusian abestuko du: J. Callerts-en *Gloria* eta *Mesias sarri-*

tan kantu ezaguna abestuko dituzte, besteen artean. Azken kantu honetan Xefe Balerdi izanen da bakarleriaren papera abesten «ausartuko dena»; izan ere, ederra bezain zaila da. Gogotsu entseatu duten egitaraua entzutekoa izanen da.

ABALTZISKETA ▶

Guraso Elkarteak zozketatutako zenbakien berri

Abaltzisketako Guraso Elkarteak, Eguberrietako egunak zetozeला aprobeztatzuz, afari bat eta saski bat zozketatu zituen, eta zorzea izan duten zenbaki sarituak hauek dira: 125a (afaria) eta 1829a (saskia eramanen duena). Azken zenbaki honen jabea ez da oraindik azaldu. Zenbakia duena lehenbailehen Abaltzisketako Guraso Elkartearekin harremanetan jar dadi-la eskatu dute.

ALEGIA ▶

HHIn izena emateko epea zabalik

Urtarrilaren 9an hasiko dira eskolara Helduen Heziketa Iraunkorrean, eta apirilaren 3ra arte iraungo dute. Astearen behin, astelehenetan, 14:30etik 16:30era izanen dira, eta landuko diren gaiak, hauek: euskara, matematika arloa, test psikoteknikoak eta denbora-pasak (letra-zopak, gurutzegramak...). Aurretik ikasitako gogoratzea eta bi orduz lagunartean igarotzea helburu nagusiak dira. Izenematea hurrengo telefono zenbakietan egin behar da: 943 67 26 60 (Tolosako HHI) edota 943 65 47 68 (Udaleko Gizarte Zerbitzuak).



hitza
zure marrazkia
argitaratuko du!

Nola ikusten duzu zure herria?

bidali zure marrazkia!

3 eta 12 urte arteko haurrak,

bidali zuen marrazkiak HITZAko egoitzara (Araba etorbidea 5, atzea Tolosa 20400), zuen izen-abizenak, adina eta marrazkiaren azalpen labur batekin). Marrazkiaren formatua: DIN A4



Parte-hartzaileen artean sariak zozketatuko ditugu. Marrazkien erakusketa egingo du urtarrilean Tolosako Alde Zaharra Merkatarikari Elkarteak.

• BAZAR AMIANO KORREO, 44	• SHANTI KIROLAK RONDILLA, 11 Bis	• GORROTXATEGI GOZOTEGIA PLAZA ZAHARRA, 7
• DAKARO KORREO, 50	• BERMUDEZ FRUTATEGIA RONDILLA, 19	• ARANBURU LIBURUTEGIA SOLANA, 7
• MAITE GOXOKIAK KORREO, 19	• MUÑAGORRI HARATEGIA RONDILLA, 5	• OGI-BERRI ESKOLAPIOETAKO LORATEGIAK, 1
• IRURA OKINDEGIA KORREO, 50 (kaletartean)	• KINU RONDILLA, 17	• OGI BERRI NAGUSIA, 13
• ALTUNA HARATEGIA KORREO, 44	• ALEJANDRO GOYA HARATEGIA RONDILLA, 23	• NATURAL BODY - B. COLLADO NAGUSIA, 25
• SUKIA HARATEGIA KORREO, 39	• XIRIMIRI TXOKOLATEGIA ERREMENTARI, 40	• KIMETZ NAGUSIA, 23
• LA CASA AZUL KORREO, 21	• INTERFILM ERREMENTARI, 44	• GORROTXATEGI DIETETIKA NAGUSIA, 2
• OGI ONA KORREO, 37	• LIZARRALDE HARATEGIA ERREMENTARI, z/g	• PIRULO'S LEITZA z/g
• NOOR KORREO, 16	• BILINTX LIBURUDENDA AROSTEGIETA, z/g	• EDEL LIBURUDENDA LEITZA z/g
• EZEIZA GOZOTEGIA RONDILLA, 34	• ZUNBELTZ DISKAK AROSTEGIETA, 9	• EL BACALAO GOXOKIAK KORREO, 51 (KALETARTEAN)

ALDE ZAHARREKO MERKATARI ELKARTEA

GAZTELU ▶ GIZARTEA

Herriko ostatuko ateaak zabalik berriro

Asteburuetan irekiko ditu ateaak; arduradun berriek hilero ekitaldi kultural bat antolatzeko asmoa azaldu dute

IÑIGO TERRADILLOS

Berriro ere ateaak zabalik ditu Gazteluko Ostatuak Rosalia Fierro, Arrate Murua, Lupita Soto eta Garikoitz Murua arduradun berriekin. Hain zuen ere, hilaren 16an egin zuten irekiera ekitaldia herriko bizilagunen eta gainerako lagunen artean. Lunch-a izan zuten lehen-dabizi eta, ondoren, Amaia Zubiriak eta Edorta Andoni Muruak kontzertua eskaini zuten. Horretaz gain, irekieran ikusgai izan zen ostatuan Alberto Letamendiren koadroez osaturiko erakusketa.

Arduradun berriek Gazteluko Udalari eskerrak eman dizkiote «gure familian jarri duen konfiantzagatik bertako taberna eta jatetxean kudeatu eta martxan jartzeko» eta, azaldu dutenez, ilusioz eta konpromisoz heldu diote zereginari. «herriarrek denborarekin gure lana eta gogoia baloratuko duten esperantzarekin».

Era berean, duten asmo nagusietako bat hilero ekintza kultural bat antolatzea dela esan dute arduradunek, eta ateaak zabalik uzten dituztela parte hartu nahi duten guztiengatzat. Hori bai, momentuz, asteburuetan baino ez ditu ateaak zabalduko, eta aurrez eskutatako kasuetan baino ez dituzte otorduak emango. Urtarrileko lehen asteburutik hasiko dira zerbitzu hori ematen.



Amaia Zubiria eta Edorta Murua emanaldia eskaintzen. HITZA



Alberto Letamendiren erakusketako koadro bat. HITZA

BERASTEGI ▶

Urte Zahar kros herrikoia antolatu du Urepelek

Berastegiko Urepele elkarteak Urte Zahar kros herrikoia antolatu duela jakinarazi du. Gaztetxoek nahiz helduek hartu ahal izango dute parte bertan. Gaztetxoek kasuan kilometro bat eta 200 metroko ibilbidea egin beharko dute, eta helduentzat, berriz, 6 kilometroko luzera duen bidea prestatu dute. Izen-ematea elkarrean izango da; helduek 3 euro eta txikienek 2 ordaindu beharko dituzte.

BELAUNTZA ▶

Pilota eskolaren jaialdia egingo dute gaur

Festa berezia antolatu dute gaur herrian, pilota eskolaren jaialdia, hain zuzen ere. 16:00etan emango diote hasiera ekitaldi bereziari, eta Belauntzako pilotalekuan egingo dute. Behin jaialdia amaituta, txokolata eskainiko diete bertaratzen diren guztiari. Belauntzako Udalak bertako nahiz Tolosaldeko neskek eta mutilak gonbidatu nahi ditu jaialdian parte hartzera.

IBARRA ▶ KULTURA



Antonino Apreta izan zen ikusgai atzo Kultur Etxean. I. TERRADILLOS

Harrera ona Eguberrietako ekitaldiek

Kutxa Kultur Ekintzaren babesarekin eta Gorringo taldearen eskutik, Antonino Apreta ipuin kontaketa saioa izan zen atzokoan ikusgai Ibarako Benito Izagirre kultur etxean. Gaztetxoak nahiz gurasoak joan ziren emanaldia ikustera, eta ederki pasatu zuten Antonino zapatariaren istorioekin. Bestalde, gaur izango da Kultura eta Gazteria batzordeak Eguberrietarako antolatu duen egitarauan azken ekitaldia. 11:30ean, Oihulari Klown taldeak *Alfonbra magikoa* emanaldia eskainiko du.

hitza

lagunen txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzu zure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

▶ DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

ILEAPAINJEGIA
honekin

TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

kanikak

San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK

Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR

Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR

OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

LEITZA ▶

Karrape Irratia emititzeko arazoekin dabil maiz

Arazo teknikoak direla kausa, azken egun hauetan irratsaioa eskaini ezinik daude

J. ASTIBIA

Bada denboratxo bat telefonoz lanik egin ezin dutela; eta aste honetan jada bi egunetan irratsaioa ezin eginik izan dira Karrape Irratian, «arazo teknikoak larritu» direla eta.

Aste honetan teknikoak lanean ari dira, arazoak konpondu nahian, eta irratsaioak berreskuratzeko eginahaletan. Atzo, «Urte Berriarekin batera, bertako tresnak aldatuko» dituztela eman zuten jakitera, ordea.

Bitartean Karrape Irratiak entzuleei «eragozpenak bar-katzeko» eskatu diete bertako langileek.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amarozkis dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
- ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe Tolosa: 652889
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitza autobus.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurreremendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

PRESOAK ▶

Abenduko hau «benetako azken ostirala izan dadin»

Etxerat-ek presoek Euskal Herriratzearen aldeko deialdiak egin ditu gaurko eta biharko Tolosaldean eta Leitzaldean

JAIONE ASTIBIA

Abenduko honetan ere, Etxerat-ek han eta hemen elkarretaratzeak deitu ditu, «euskal preso politikoei estatus politikoa errekonozitu eta sakabana-ketarekin behingoz buka dadin» eskatzeko.

Aitatzekoa da deialdi hauekin bat egin eta elkarretaratze hauetan parte hartuko dutela Ibaetan plazaratutako «esku-bideak bermatzeko, konponbidea sustatzeko» delako manifestuaren sinatzaileek ere, «kirolariak, irakaskuntzako, kultur gintzako pertsonaia ezagun eta eragileak» guztiak. Euskal preso politikoen eskubide guztien eta haien Euskal Herriratzearen aldeko adierazpen horri, geroz eta atxekimen gehiago batzen ari zaizkio, gainera: «oraingoa apaizak eta mojak, aktoreak, artistak...», ohar baten bidez jakinarazi dutenez.

Bestalde, azken ostiraletako ohiko elkarretaratzeei, honetakoan, ordea, urteko azken egunarekin ere ia bat egiten duenez azken ostiralak, zenbait herritan deialdi bereziak egin eta urteko azken eguneko aldarrikapen ekitaldiak eta Etxerat-en ohiko hauek bateratu egin dituzte. Leitza eta Amezketan, esate baterako, halaxe egin dute eta Urte Zahar egunean dituzte egitekoak; baina beste-tan biak mantendu dituzte, Ibarrran, Anoetan edo Zizurkil, Villabona, Larrraul, Alkiza eta Adunako udalek deitutakoa izanen da manifestazioa, aurten Zizurkilgo Joxe Arregi plazatik atera eta Villabonako plazan bukatuko dena.

GAUR

Anoeta. 19:30etik 20:00etara, herriko kaleetan zehar.



Etxerat-en Orantzaro. JAIONE ASTIBIA

- Aduna.** 20:00etan, ohiko lekuan.
- Alegia.** 19:30ean, ohiko lekuan.
- Asteasu.** 20:00etan, ohiko lekuan.

LEITZA ▶ EKONOMIA

Iruso ostatua 'Leku bitxi' izendatu berri du Anapeh ostalarien elkarteak

Lehiaketan, Nafarroa osoko ostalaritzako 21 establezimenduk hartu dute parte

J. ASTIBIA

Iruso ostatua *Leku bitxi* izendatu du Nafarroako Ostalaritzako Enpresa Titikien Elkarteak (Anapeh), «ostatuen, nekazal etxeen, hotelen eta aterpetxeen sailean» egin ere, eta herenegun bertan, sariak argitaratu zituzten ekitaldian berean, jaso zuen Iruso jatetxe eta ostatuaren jabekide den Fran Hernandezen aitaututako ezaugarria.

«Oso gustura gaude», adierazi zion HIRZARI atzo Hernandezenak berak: «Hiru hilabete besterik ez ditugu hemen lane-

dugu, eta oso gustura gaude», zioen. Ostatuen sailean 8 parte-hartzaile ziren lehian.

Irusok eskuratu duen sariak «leku berezia» izatea baloratu du: «Naturarekin bat egiten duen kokalekuan egonik, lasai egoteko lekua izatea; bertako dekorazioa, altzariak, garbitasuna eta bezeroei arreta baloratu» dute; eta, bestalde, «enpresa sortu eta garatzeko ardurua hartu izana, hain gazte izanik».

Oso sari «baliagarria eta garrantzitsua» dela zeritzon Hernandezenak: «Hasi berriki iza-

barra. 20:30ean, herriko sarreran elkarretaratzea eginen dute aurrena; eta, ondoren, plazaraino giza-katea.

Ikaztegieta. 20:00etan, ohiko lekuan.

Lizartza. 20:00etan, ohiko lekuan.

Tolosa. 19:30ean, Trianguloan.

Villabona. 20:00etan, ohiko lekuan.

Zizurkil. 20:00etan, ohiko lekuan.

BIHAR

Alegia. 19:00etan herriko plazatik abiatuta manifestazioa eginen dute *Euskal presoak Euskal Herrira* lelopean.

Alitza. 20:00etan elkarretaratzea eginen dute herriko plazan, euskal presoek eskubideen alde.

Amezketeta. 20:00etan elkarretaratzea eginen dute herriko plazan.

Anoeta. 19:30ean elkarretaratzea eginen dute udaletxe aurrean *Estatus politikoa orain, euskal presoak Euskal Herrira* leloarekin.

Ibarra. 19:30ean hasita trikitipoteoa eginen dute plazatik hasita.

Leitza. 19:00etan manifestazioa eginen dute plazatik aterata *Igor eta Eneko askatu! Euskal presoak askatu!* aldarriarekin.

Zizurkil. 19:00etan, Joxe Arregi plazatik abiatuta, manifestazio ixila eginen dute *Aiztondo bailara giza eskubide guztien alde* leloarekin, udalek deituta.

nik, ezagutzera emateko ezin egokiagoa; izan ere, elkarteak berak argitaratzen dituen turismorako gidetan azalduko da Iruso, eta *Leku Bitxi* izendapenak «aparteko izena» emanen diola baieztatuta zuten.

Izendapenarekin batera, gainera, eurentzat ere, Irusoko jabeentzat, saria eskuratu zuten, aste beteko oporraldia Tenerifen, «ederki etorriko zaigu, aurtengo oporrak izanen dira eta», azaldu zuten.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Besteak beste, honako gai hau dago leihoan: «Azkenaldian ugariak dira Tolosan, batez ere larunbat gauetan, liskarrak: jipoiak, txikizioak, mehatuak... Zer dela-eta gertatzen dira horrelakoak? Zer egin daiteke horri konponbidea emateko?».

iragarki laburrak ▶

<p>SALGAI Behorrak. Monturako bi behor gazte salgai. Deitu 675 70 49 23 telefono zenbakira.</p>	<p>sendiarekin harremanetan jarri nahi dugu. Deitu arren 943 62 48 60ra.</p>
<p>OHARRAK Harremanak. Frantziska Garmendia Sarasolaren</p>	<p>LANA Sukaldaria. Emakume sukaldari profesionala behar da. Igandetan jai. 606 61 52 93.</p>



AGENDA ▶

ANTZERKIA

Ibarra. Oihulari Klown taldearen *Alfonbra magikoa*. 11:30ean, Kultur Etxean.

DEIALDIAK

Belautza. Pilota eskolaren jaialdia. 16:00etan, pilotalekuan. Jaialdia amaituta, txokolatea izango da guztientzat.

Irura. Eguberrietako ekitaldien barruan, merienda izango da plazan, 17:30ean, haur eta gazteentzat.

Tolosa. Laskorain ikastolak antolatutako Merkatu Txikia Kultur Etxean, Sahara eta Boliviaren alde. Saharara bidaltzeko elikagaiak ere jasoko dituzte.

Tolosa. Gabonetako Haur Parkea Ferialekuan, 10:30etik 13:30era eta 15:30etik 19:30era. Sarrera, 3 euro. Bihar azken eguna.

Tolosa. Txinparta elkarteak urteroko Errege kanpaina ari da egiten lurrean, Belateko zentroan eta San Cosmen banatzeko. Opariak edo dirua Errementari 32ra eramane daitezke, 19:30etik 22:30era.

Villabona. Adunako, Zizurkilgo eta Villabonako odol emaileek odola emateko aukera izango dute, 18:30etik 20:30era, Villabonako anbulategian.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

Tolosa. Tau Ceramica-Winterthur FCB saskibaloia partidua ikusgai izango da Kultur Etxean, 19:00etan. II. Gazte Astearen baitan.

MUSIKA

Alegia. Txinbarri eta Txinbarri Txiki abesbatzen kontzertua, Gabon-kantekin. 19:30ean, elizan.

Tolosa. Piano kontzertu pedagogikoa haurrentzat, Xabier Lizasorekin. 17:00etan, Txinparta elkartearen. 75. urtemugan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.
Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

Alde onak eta txarrak

I. MARRAZKI LEHIAKETA ▶ Beren herrietako gauza onak eta hobetu beharrekoak marraztu dituzte Andreak, Aitorrek, Andreak eta Marinak



ZIZURKIL ▶

Andrea Cortes (10 urte).

Hala dio gure lagunak: «Herria oso ondo dago, baina laster etxeak egingo dituzte eta parkea desagertuko da. Herria oso garbia dago».



TOLOSA ▶

Andrea Riñon Arrese (10 urte).

Salaketa egin nahi izan du tolosarrak: «Toki batzuk hau bezalakoak dira, zikinak. Nik nahiko nuke jendeak zaborra ez botatzea».



TOLOSA ▶

Aitor Sagastume (10 urte).

«Alde ona: zezen-plaza zezenak hazteko, eta alde baxra: zaharren egoitza lekuz aldatzea», dio tolosarrak bere marrazkian.



TOLOSA ▶

Marina Lakunza Elizaran (10 urte).

Tolosako txoko eraberritu bat jaso du Marinak bere marrazkian. «Errota tolosarra da», dio.

AGURRAK ▶

HITZA, zorion agurren tartea
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA** • Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!